

# «Kartzelako urteak nire biografiaren parte dira»

Zubi bat eraiki zuen Frankfurtetik Urnietara.

UXUE ALBERDI

Argazkiak: Dani Blanco

**Frankfurt zubiz beteriko hiria da. Jaioterriari ikasi zenion zubigile lana?**

Bai, betidanik izan dut egunen batean kanpora joateko, zubiaren beste aldean bizitzeko ideia hori. Agian, Frankfurt atzerriko eragin handia duen hiria delako. Atzeritar asko bizi dira, aireportu handia du... Zubiaren alde ezaguna estuegi geratuko zitzaidan, eta behar nituen beste inpultso batzuk.

**Zure identitateaz galdetzen badizut? Nolaosatzen da?**

Nomada sentitzen naiz, baina, momentuz, nomada horren kokalekua edo egonlekua hemen aurkitu dut, Euskal Herrian. Baina, aldi berean, bizi izan naizen leku guztietatik onena hartzen saiatu naizela uste dut: Madrildik martxa, Frantziatik komunikazio-arekiko interesa, Euskal Herritik doinu goxoak eta Alemaniak sakontasuna. Gelto-ki horietan joan da garatzen nire identitatea. Bizi izan naizen leku guztietan sentitu naiz gustura, eta beti saiatu izan naiz haietatik zerbait hartzen. Euskal Herrian oraindik eraikitzeke dauden gauzak ikusten ditut, ez dago dena erabat egina, eta uste dut hori gustuko dudala.

**Noizkoa da Euskal Herriarekiko duzun lotura emozionala?**

80ko hamarkadatik dator, lehenengo aldiz hona etorri nintzenetik. Hasieran, musikaren bidez hurbildu nintzen, “*rock radical vasco*”ren garaian. Alemaniako rock musika talde batekin etorri nintzen, garai hartan itzultzaile aritzen baintzen gaztelaniaren eta alemanaren artean. Hemengo festetan eta gaztetxetan jo zuten, eta Alemaniako mobida azaldu genuen guk. Alemanian oraindik okupa garaia zen, antinuklearren garaia... Halako mugimendu asko ziren, eta gure ideia hemen gure herriko mugimenduen berri ematea zen; eta, era berean, baita hemengoa ezagutzea ere. Lehenengo aldi hartan Kortatu, Cicatriz, Zarama, La Polla

Records, Belladona, Itoiz... entzun genituen.

**Musikaz gain, zer aurkitu zenuen hemen 80ko hamarkadan?**

Herri mugimendu handia, eta adin guztietako jende osatua. Aitona-amonak ikusi genituen manifa batean. Halakorik ez zen Alemanian! Langileak, baserritarrak, burgesak... Klase guztietako jendea, emakumeak, gizonak... Denak nahastuta ikusten genituen, eta proiektu baten inguruan bilduta. Era guztietako jendea proiektu ezkertiar baten inguruan, eta hori oso interesgarria iruditu zitzai-

## Nortasun agiria

Petra Elser 1963ko maiatzaren 26an jaio zen Frankfurt. Idazkari ikasketak egin zituen, eta gazte garaian Alemaniako 80ko hamarkadako ezker mugimenduetan ibili zen. 28 urterekin Madrila joan zen gaztelania ikas-tera, eta hiru urtez bizi izan zen bertan. Ondoren ezagutu zuen bere semearen aita, Juan Luis Agirre euskalduna, eta Frantziako hegoaldean bizi izan zen harekin. 1996an atxilotu zituzten, 18 hilabeteko semearekin batera: ETako militantea izatea leporatuta Juan Luis, eta laguntzaile izatea leporatuta, Petra. Sei urte eman zituen espetxean eta, tartean, urtebete kalean. Askatasun urte horretan Parisen bizi zen eta idazkaria zen nazioarteko enpresa batean. Lanpostuan atxilotu zuten, eta Madrila estraditatu. Espetxean beste bi urte egin ondoren libre utzi zuten, akusazioa bertan behera geratuta. Kartzelan ikasi zuen euskara. Geroztik, Euskal Herrian bizi da, semearekin. Gaur egun, itzultzailea da eta eragile lanak egiten ditu hainbat kultur eta literatur proiektutan. Zubigilea da Alemaniaren eta Euskal Herriaren artean, eta literaturari eta itzulpengintzari loturiko hainbat ekitaldi antolatuta izan ditu Zubiak eta EuskAlema ekimenen bidez. Besteak beste, Joseba Sarrionandiaren *Lagun izoztua*, Edorta Jimenezen *Kilkerren hotsak* eta Aingeru Epaltzaren *Rock 'n roll* liburuak itzuli ditu alemanera.



• PERSONAIA •

Petra  
Elser





dan. Hemen tradizioa eta modernitatea naturalki uztartzen zirela ematen zuen. Bate-  
tik, herri kultura presente zegoen: bertsolari-  
tza, trikitixa, musika tradizionala, euskal dan-  
tzak, baserriko jantziak... Baina, aldi berean,  
punkyak eta mobida apurtzaile oso moder-  
noak ere baziren. Eta jende desberdin hori  
guztia helburu beraren inguruan biltzen zen.  
Sinestezina. Hemengo politikagintza Alema-  
niakoa baino askoz ere praktikoagoa iruditu  
zitzaidan.

### Praktikoagoa, zergatik?

Hemen ez zegoen hainbeste debaterik  
ildorik egokiena zein zen eztabaidatzeko,  
gizartearen beharrei erantzutera bideratzen  
zen politika, arlo desberdinetan: langileen  
eskubideetan, ekologian, feminismoan,  
gaztedian... Herri proiektuek, gizarte  
proiektuek indarra zuten. Gaur egun nahi-  
koa desagertuta ikusten dut praktikotasun  
hori, nahiko zentratuta euskal gatazkaren  
inguruko dialektikan, hitzen inguruko tira-  
biran, eta gatazka horri irtenbidea emateko  
ezintasunean. Gainerako gizarte arloetatik  
nahiko desagertuta ikusten dut herri mugi-  
mendua eta praktikotasuna. Estankatuta  
ikusten dut hemengo politika.

### Non galdu da praktikotasun hura? Zergatik?

Nire ustez, azken proposamen praktikoa  
Lizarra-Garaziko akordioa izan zen. Gi-  
zarte eragile desberdinak bildu ziren, eta  
garai bateko zabaltasuna islatu zuten: hain-

## Arrotz

**“Arraroa egiten zait  
jendea hemen  
euskararik gabe  
bizi ahal izatea.  
Hemen, erdaraz  
ala euskaraz bizi,  
bi mundu bereizten  
dira, eta nire  
erreferentziak  
euskaldunen  
munduan  
daudenez, arrotz  
sentitzen naiz  
Euskal Herriko  
erdaldunen artean,  
ez dut non nagoen  
jakiten: ez ditugu  
egunkari berdinak  
irakurtzen, ez  
ditugu telebista  
saio berdinak  
ikusten, ez ditugu  
liburu berdinak  
irakurtzen, ez gara  
ekitaldi berdinetara  
joaten...”**

bat alderdi, sindikatuak, erakundeak... Eta  
gauza askoren inguruko eztabaida ireki  
zen: lurraldetasuna, Iparraldearekiko lotu-  
ra, Euskal Herria bere osotasunean ikustea,  
kultura, osasuna, gizartearen egituraketa,  
gizarte antolamendua... Lehen aipatu  
dudan mugimendu guztia Lizarra-Garazin  
islatuta ikusi nuen: 80ko hamarkada oso  
politizatutik sorturiko ideiek eta esperien-  
tziek Lizarra-Garazin hartuko zuten  
forma, bertan gauzatuko ziren. Baina hori  
ez zen gertatu, eta hortik aurrera “gatazka-  
ren konponbidea” delakoan zentratu da  
politika, baina azken batean hitzen inguru-  
ko borroka teorikoan harrapatuta gaude.  
Inertzia arriskutsuan kateatuta.

### Orain zaila iruditzen zaizu halako beste aba- gune bat sortzea?

Bai, zoritxarrez. Baina beti saiatu behar da,  
ez da helbururik galdu behar eta ez da etsi  
behar. Baina, egoera dagoen moduan, garai  
hartan baino askoz zailagoa da. Uste dut jen-  
deak indibidualki hartu duela erretiroa. Jen-  
deak beste herri edo gizarte eraikuntza mota  
bat nahi zuen, eta bakarkako erretiroa har-  
tzea aukera txar guztietan onena iruditu  
zitzaien: etxean geratzea eta norbere gauzez  
arduratzea. Eta, bitartean, politikariak indar  
neurketan harrapatuta, eta indar neurketa  
zerbait militarra da, bi aurkari ari dira elka-  
rren kontra. Horrek sufrimendu handia  
ekartzen du, eta ez du eraikuntzarako balio.  
Indar neurketa hutsean geratzeak ez du



emaitza positiborik ematen, ez baita ezer sortzen. Alderantziz, zerbait puskatzen da, gastatzen da eta indarrak erretzen ditu.

**“Hemen sufrimendurako gaitasun handia dago” irakurri dizut Euskal Herriaz. Zergatik diozu hori?**

Hainbat eta hainbat urtetan egoera latz hau agoantatzeak hori erakusten du. Jendeen bizitzan eta gizarte mailan ikusten dut askok ez dutela zerbait aldatu behar dutenik pentsatzen, baizik agoantatu egin behar dutela. Hemen asko entzuten da “guk agoantatuko dugu”, eta agoantatzen da, baina igual momentu batean ezingo da gehiago agoantatu, eta gainera hori ez da produktiboa. Uste dut sufritzeko gaitasun hori historiari datorrela, eta kultura katolikoaren eragina dela. Euskal Herrian sufrimendua eta sakrifizioa oraindik balore positibotzat hartzen dira, baita mugimendu politikoetan ere. Presoen gaia nola tratatzen den ikusi besterik ez dago.

**Eta horrek nora garamatza?**

Agian sufrimendu hori infinitura arte luzatzen, edo indar guztiak erretzera. Jende askok esaten du “guk agoantatuko dugu behar den denbora guztian”. Baina zein emaitzarekin? Zer ekarriko du sufrimendu horrek guztiak? Euskaldunok zoriontasunari balio handiagoa ematen ikasi behar genukeela uste dut, eta zorionaz ari naizenean ez naiz dibertsio hutsaz ari, benetako zorionaz ari naiz. Zorionaren bila abiatu behar genuke bizitzako helburu gisa. Eta ez indibidualki bakarrik. Ze zorionaren bila joatea askotan bide indibidualarekin lotzen da: maitemintzearekin, sekulako lanpostua lortzearekin, seme-alabak izatearekin... Baina uste dut hori gizarte mailan ere landu behar dela. Zorion kolektiboaren bila joan behar genuke horrenbeste sufritu gabe.

**Indar neurketaren orde z herri eraikuntza, beraz. Zeintzuk lirateke eman beharreko urratsak?**

Euskaldun sentitzen garenok gizarte proiektu baten inguruan bildu behar dugu. Bakoitza dagoen lekutik, bakoitza bere arloan, eraikuntzara jo behar dugu. Ezin dugu konponbidearen edo ez dakit noren itunaren edo negoziazioaren zain egon. Dagoen momentutik eta lekutik abiatu behar litzateke bakoitza. Eztabaida praktikoa egin behar da. Hitz egin eta botoa eman, baina aldi berean errealitatean eragiten saiatu. Konfrontazio militarra amaitu egin behar da, ETAk aspaldi utzi behar zituen armak, eta ezker abertzaleak mugimendu erabat zibil bihurtu behar du.


# UROLA JATETXEA

FERMIN CALBETON, 20  
20003 DONOSTIA

© 943 423 424 · Fax: 943 424 424

urola@restauranteurola.com

[www.restauranteurola.com](http://www.restauranteurola.com)





Alderdiak eta erakundeak berriro legalak izateko baldintzak bilatu behar dira, euskal arazo guztia gizarte zibilera pasatzeko. Dena den, gizarteak urrats berriak emateko, nolabaiteko herri eraikuntza posible izateko, iraganeko zauriez hitz egin behar da. Adiskidetzea hitz ponpoxoegia da, kutsu moralegia dauka. Baina alde bakoitzaren sufrimendua onartu behar da, ahoskatu egin behar da, alde bakoitzak dolua eta memoria egin ahal izateko eskubidea izan behar du. Horrela bakarrik lortuko dugu beste gauza batzuetara igarotzea, gai berriak jorratzea.

### **Orain arte ez duzu zure iragan politikoaz hitz egin nahi izan. Zergatik?**

Ez nuen “preso ohi” markarekin bizi nahi. Kartzelatik irten eta hona etorri nintzenean ni izan nahi nuen, nire lana egin nahi nuen eta nintzen horretatik egin nahi nituen lagunak. Nintzen eta nengoen moduagatik egin nahi nituen harremanak. Ez nuen nire iraganak nire etorkizuna baldintzatzerik nahi ez lanean, ez lagunartean. Ez nuen jendeak “preso ohia naiz” entzun eta jarreraz aldatzerik nahi, onerako zein txarrerako. Aurreiritziak sortzen dira, eta sailkatu egiten zaituzte, eta nik ez nuen sailkatuta bizi nahi.

### **Eta zergatik hitz egin nahi duzu orain?**

Alde batetik, dagoeneko jendeak naizenagatik ezagutzen nauelako, egin dudana lanagatik edo nire jokaerengatik, eta beste alde batetik, nire biografiaren parte delako, eta ez dudalako saihestu nahi. Ez dut beti horren inguruan itzulika ibili nahi, eta pentsatu dut nire biografiaren parte dela eta nire biografiaren osotasuna onartzea dela osasuntsuena. Normaltasunez integratu nahi dut nire bizi ibilbidean.

### **Askorentzat arraroa izango da “atzerritar” bat, alemaniar bat ETArekin loturiko kausa batetatik preso egon izana. Nola bizi izan zuten zure Alemaniako senideek?**

Gaizki. Batzuek gaizki eta beste batzuek oso gaizki. Oso egoera zaila izan zen. Azaldu nien zer zen Euskal Herria eta, bikote-

kide nuenak, nire semearen aitak esplikatu zien, saiatu zen transmititzen zer den euskalduna izatea eta hemengo historia zer den... Uste dut zer bait ulertu zutela, baina horrek ez du esan nahi ezertan ados zeudenik. Gaur egun, naturaltasunez hitz egiten dugu gai horretaz. Urte batzuk pasa dira kartzelatik atera nintzenetik eta, gainera, senideek kartzelako errealitatea bizi ahala, gero normaltasun handiagoz integratu zuten euren bizitzetan. Ikusi zuten ez zela munduaren amaiera, eta ni lehengo pertsona bera nintzela.

### **Eta zuk? Nola bizi izan zenituen espetxeko urteak?**

Nik ere gaizki, batez ere semearengandik bananduta egon beharra, hori izan zen gogorrena niretzat. Hori alde batera utzita,

moldatu nintzen: egoera zein zen banekien, eta saiatu nintzen denbora ahalik eta ondoen aprobetxatzen. Eguneroko bizitzan ez nuen hainbeste nabaritu. Gainera, bikotekidearen familiaren eta bion lagunen laguntza handia jaso genuen.

### **Kartzelaren aurretik, nolakoa zen zuen eguneroko bizitza?**

Juan Luisek eta biok Parisen ezagutu genuen elkar, bizitzan batzuetan gerta-

tzen diren kasualitatezko gurutzatze horietako batean. Edo konstelazioen eragina izango zen agian, urte berekoak eta ia egun berekoak baikara. Kuriosoa dirudien arren, gure elkarbizitzan Euskal Herria bera eta Euskal Herriko gaiak ez ziren oso presente izan. Frantzian bizi ginen, gustura, biontzako erdibidean. Gure erreferentziak frantsesak ziren. Liburu eta egunkari frantsesak irakurtzen genituen, eta Frantziako aktualitateko gaiak interesatzen zitzaizkigun.

### **Ez zenuten politikaz hitz egiten?**

Gure iraganari edo gaztetasunari buruz hitz egin genuenean konturatu nintzen oso gauza desberdinak bizi izan genituela. Bera gizarte estuan, ilunean hazi zen, oraindik Francoren diktaduraren eta elizaren menpe. Frankismoaren ondoren ere konfrontazio gogorrak eta langabezia larria bizi izan zituen. Harritu egin nintzen txiki-



## OFF THE RECORD

## Aufbruchstimmung

Gauzak aldatzeko giroa. Horixe esan nahi du alemanez. Horixe aurkitu zuen Petrak Euskal Herrian 80ko hamarkadan. Eta ziur dio gauzak aldatzeko giro honen bila abiatu behar dugula euskaldunok. Aufbruchstimmung-erantz. Egitea esatea baino errazagoa izango ahal da!

tatik gurasoekin manifestara edo ikastolen aldeko ekitaldietara joaten zela kontatu zidanean. Gai horiei buruz hitz egin genuen, baina gure artean militantzia, politika, ETA edo Euskal Herriko gatazka ez ziren oso gai garrantzitsuak izan. Agian, bikotekidearen iheslari baldintzagatik bizitza normala egitea ezinezkoa zelako saiatu ginen ahalik eta normalen bizitzen eta eguneroko gauza txikiekin gozatzen. Guretzat ondorio larria izan zezaketen gaiak saihestu genituen.

## Gaur egun, ze harreman duzue?

Gure harremana ez zen politikan oinarritu. Maitasun istorioa izan zen, eta familia sortzearena. Distantziak eta kartzelako baldintzak nolabait gaingitu egin gaitu, baina hala ere harreman hurbila izaten jarraitzen dugu. Gaur egun gehiago hitz egiten dugu politikaz, eta askotan iritzi bera izaten dugu beharrezko diren aldaketei buruz. Baina batez ere, distantziak distantzia, semearentzat ahalik eta guraso onenak izaten saiatzen gara.

## Interneten zure izena klikatu eta alemanezko Wikipedian "terrorista alemaniarra" zarela dio zure ama hizkuntzan. Zer sentitzen duzu halakoetan?

Ez du ni naizenarekin zerikusirik. Gogorra iruditzen zait norbaitek hori Interneten zintzilikatu izana, eta lagunek esan izan didate "egin zerbait, aldatu ezazu", baina nik ez dut horren beharrik sentitu. Norbaitek hori ipini nahi badu, aurrera, nik badaikit hori ez naizela ni.

## Euskaraz espetxean ikasi zenuen.

Bai, semea jaio zenean hasi nintzen nire kontura ikasten, *Bakarka* testu liburuarekin, eta kartzelan *Bakarkako* bost liburuki ikasteko denbora eman zidan. Denbora ondo aprobeitatu nuela sentitu nuen.

Eta geroztik euskararen militante sutsua zara. Etorkina eta Euskal Herrian integratua. Agian pista batzuk eman ditzakezu etorkinen integrazioari eta euskalduntzeari buruz.

Bai, nik euskararekin ez dut hemengo jende askok daukan harreman traumatikoa. Alderantziz, hitz bakoitzak, esaldi bakoitzak mundu bat eman zidan. Etorkinen integrazioari oso gai garrantzitsua deritzot, eta gainera, identifikatuta sentitzen naiz. Gustatuko litzaidake kanpotik datozenei euskararekin daukadan harreman positiboki zerbait transmititzea. Oso kontzienteki egin beharreko lana da, integrazioa ez da automatikoki gertatzen, nahiz eta euskal gizartea nahiko irekia dela uste dudana. Baina ez da nahikoa "gu irekita gaude eta etor daitezela" esatea, bideak asmatu behar dira pertsona horiei eskua emateko, jende horri euskara eta euskal kultura benetan interesgarri gertatzeko.

## Zertan oinarritzen da esku artean darabilzun proiektu berria?

Etorkinei euskal kultura, herri kultura eta literatura, bertsolaritza, kirola... eta batez ere euskara hurbiltzea da ideia. Euskal identitate hurbiltzeko eta euskara ikasteko burua bakarrik erabili beharrean, gorputza eta beste zentzumenak erabiltzea. Emozioetatik ikastea. Dantza, euskal kanta edo bertsolaritza ikastea, eta euskara ikasten ez hastea liburuetatik edo gramatikatik... Euskara zerbait egiten dugun bitartean, zerbait sentitzen dugun bitartean ikastea da ideia. Proiektuaren beste ezaugarri bat herriko elkarteak (dantza taldeak, kirol taldeak, abesbatzak, bertso-eskolak...) integrazioaren eragile aktiboak izatea da. Proiektu honen bidez elkarrean artean sentsibilizazio prozesu bat abiarazi nahi dugu, eta elkarrekin aztertu etorkinei ateak kontzienteki nola ireki.

## Gaur egun zertan ari zara lanean?

Administrazio bulego batean, enpresa batean. Baina nik neure burua euskararen aldeko lanean ikusten dut, eta asko gustatuko litzaidake etorkinentzako proiektu hori aurrera eramatea, oso garrantzitsua iruditzen zaidalako, eta nire azken bost urteetako esperientzia transmititu nahi nuke. Euskararekin, literaturarekin eta kulturarekin lotuta egindako lanean bildutako esperientziak asko izan dira eta oso aberatsak, eta gustatuko litzaidake lanaren bidez esperientzia hauetatik zerbait transmititu ahal izatea. ■

[www.argia.com/argia-astekaria](http://www.argia.com/argia-astekaria)

helbidean, elkarriketaren bertsio luzea.